

KUKUAREN GANDORRA

Antzina kukuak oso gandor dotorea zuen, halako ile mataza harro-harro bat buru gainean.

Behin basoilarra joan zitzaion bisitan. Bisitan... edo... eskean.

-*"Hi, hau eta zera eta bestea"*, zeharka hitzegiten hasi zen eta azkenean... *"aizu, ezkontza batera joan behar dut eta... utziko al didazu zure gandorra?"*. Eta kuku esku zabalak utzi egin zion.

Ospakizunera agertu zenean, ezkon-berriei baino arreta handiagoa eskaini zioten basoilarri. *"Oooh!", "aaah"*, gonbidatu guztiek egiten zuten asperen. Oilar arrunt batek kukurruku luzea eginda goraipatu zuen haren edertasuna.

Gonbidatu guztiak zeuden jakin minez. Azkenean batek egin zion galdera:

- *" Nork utzi dizu gandorra? "*.

- *" Utzi? Salomon erregeak oparitu dit, eman dizkiodan aholkuen truke "* .

- *" Oooh! Salomon Errege jakintsuari aholkuak eman! Aaah! ze jakintsua bera! eta ederra, ze ederra bera!"* .

Denak aho zabalik utzi zituen. Hark hartu zuen ospea! Eta bera pozik, jakina. Harro harro zebilen.

Basoilar harroputza, basoilar gezurtia, basoilar lapurra! Lapurra, bai.

Kukuak gandorra itzultzeko eskatu zionean -gaixoak burua hotzitura zeukan- ez zion ba erantzun:

-*"Hotzak bazaude jantzi txano bat. Niri bost axola"*.

Kuku gizajoari begiak puztu zitzaizkion negarrari eutsi ezinik. Oso triste bizi da harrezkero; bere kantua entzutea baino ez dago. Jendeak uste du ku-ku, ku-ku esaten duela, baina oker dago. Badakizue zer esaten duen? Pu-pu, pu-pu... kukua oso minduta dagoelako.

